

## **Bedaioako musikariak**

### **Juan Migel Amundarain Garin**

- Amezketan jaio zen, 1867/04/05ean.
- Bedaion hil zen, 1936/07/03an.
- Arrupe baserrikoa.
- J. A. Sarasolari txistua jotzen irakatsi zion.
- J.A. Sarasolaren aurretik Ingurutxoak jotzen zuen Bedaion.

### **Manuela Artola Agirrezabala**(jaiotza agirian Aguirrezavala)

- Bedaion jaio zen, 1867/12/29an.
- Bedaion ezkondu zen, 1890/04/30ean, Santos Maizarekin.
- Bedaion hil zen, 1954/01/17an.
- Panderoa jotzen omen zuen, Nagore Maiza birbilobak dioenez.

M<sup>a</sup> Dolores Maiza Artolak (Manuelaren bilobak) kontatua:

*“Alaba bakarra zen eta oso umea zela hil omen zen bere ama. Orduan aita Ameriketara joan omen zen diru pixka bat egindakoan bueltatzeko asmoz baina erori eta buruan edo lepoan hartu zuen kolpearen ondorioz hil egin omen zen. Manuela, aita Ameriketara zen bitartean eta umezurtz geratu ostean, Bedaioako hainbat baserritan egon omen zen. Hasieran, Bearneko familia batek hazi eta hezi omen zuen. Sute baten ondorioz, baserri hori erre egin omen zen eta gero Illorretan eta Jazkun ere egon omen zen Manuela.*

*Errotako Santos Maizarekin ezkondu eta bertan jarri omen ziren bizitzen. 7 seme eta 2 alaba izan zituzten eta hauetaz gain, beste bi haurrei ere bularra eman omen zien.*

*Semeetako bat, Antonio, oso dantzari ona omen zen eta soinua ere jotzen omen zuen. Hau Txaramara ezkondu zen.*

*Manuela 86 urte ingururekin hil zen Bedaioako Errota baserrian.”*

### **Juan Antonio Sarasola Zubillaga**

- Bedaion jaio zen, 1887/03/30ean.
- Bedaion hil zen, 1983/01/19an.
- Lanbidez baserritarra.
- Nafarroako Arribera joaten zen txistua ikastera, han Alfonso Juanbeltzekin ikasi zuen, eta Juan Migel Amundarainekin ere ikasten zuen.
- Ugarten, Bedaion eta inguruko herrietan, Nafarroako herri askotan (Azkaraten, Gaintzan, Intzan, Lekunberrin...) eta Abaltzisketan ere jotzen omen zuen.
- Etxean askotan jotzen omen zuen.
- Azkarateko festa batzuetan senide baten etxean bazkaltzera joan zen batean, bazkal ondoren garaiz altxatu, besteak agurtu eta plazara joan omen zen; han zeuden txistulariei baimena eskatu eta txistua jotzen egin omen zuen saioa.
- Etxean ez zien utzi nahi izaten txistua jotzera joaten, gazteen artean, **txistua ondo ikusia ez zegoelako**.
- 80 urte bete zituenean, omenaldia egin zioten Bedaion eta txistua eta danbolina berriak oparitu zizkioten, baina ez zituen gogokoak, bere instrumentuekin hobeto jotzen omen zuen-eta. Horrela esan omen zien: “zaharrari instrumentu berriak ematea ez da egokia”.

### **Antonio Maiza Artola**

- Bere alaba Rosa M<sup>a</sup>k emandako datuak:

*“Bedaion jaio zen 1897ko urtarrilaren 6ean.*

*Donostian hil zen 1991ko azaroaren 8an.*

*Bere kasa ikasi zuen trikitixa jotzen eta etxean, lagunartean, kuadrilan... jotzen zuen.*

*Oso dantzari ona zen eta musika izugarri gustatzen zitzaion. Irratian edo telebistan trikiti doinuren bat entzuten bazuen emozionatu egiten zen.”*

### **Dimas Zubeldia Jauregi**

- Bedaion (Tolosa) jaio zen, 1936/05/12an.
- Bedaion (Tolosa) hil zen, 2003/04/09an.
- Ahoko soinua jotzen zuen.

### **Joakin Otamendi Azurmendi**

- Donostian jaio zen, 1941/03/10ean.
- Aita Bedaiokoa zuen eta maiz joaten ziren eta dira Bedaiora. Bedaiotarra sentitzen da bera ere, Donostian bizi den arren.
- Aranzadi Zientzia Elkarteko zuzendaritzako kidea.
- Kantu gregorianoan egin zituen lehen saioak, eta San Bizente parroko tiple izatera iritsi zen, Gelasio Aramburu apaizarekin. Gero, Madrilgo Musika Sakratuaren Goi-mailako Institutuan egin zituen musika-ikasketak, besteak beste Samuel Rubio eta Tomas de Manzaragarekin. Donostiako Seminarioko koruko zuzendari ere izan zen, 1962-1964 urteen bitartean.
- Donosti Ereski Eskola Gregorianista koruko zuzendaria da.

<http://www.cantogregoriano.es/indexcorodonostiereski.htm>

### **Eba Beldarrain Larreta**

- Amezketa jaio zen, 1974/07/24an.
- Administrazioarako teknikari espezialista ikasketak egin zituen, eta Idazkaritzan dihardu lanean.
- Musika:
  - Amezketako Musika Eskolan hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten.
  - Tolosan jarraitu zuen Isidro Larrañagarekin.
- Bedaioko organista izan da.
- Orain, Nekane Izagirrek jarraitzen du.

### **Ibon Otaegi Pérez**

- Donostian jaio zen, 1975/03/01ean.
- Bedaioko txistularia da 2006tik.
- Ikasketak: Enpresa-zientziatan lizentziatua.
- Musika:

- Erdi-mailako titulua lortu zuen txistuarekin Donostiako kontserbatorioan.
  - Dultzaina ikasi zuen Hernaniko Musika Eskolan.
  - Alboka.
  - Gitarra eta kantua.
  - Saxoa.
  - Akordeoia (umetan aritzen zen, orain ez).
  - Kresala dantza-taldeko musikaria.
- Lanbidez: Euskadiko Kutxako langilea.

### **Jon Azpiroz Agirregomezkorta**

- Pasaian jaio zen, 1975/05/05ean.
- Ingeniari Teknikoko ikasketak ditu eta L.K.S. Ingenierian lan egiten du.
- Musika:
  - Pasaiako Illunbe Musika Eskolan egin zituen musika-ikasketak: solfeoa eta biolina.
  - Pasaiako orkestran aritu zen 10 bat urtez.
  - 1998an, Elkartasuna dantza-taldean sartu zen, eta 8 urtez aritu zen biolina jotzen.
  - Alkarkide txarangako kidea da, eta, hor, euskal dantzak eta euskal musika lantzen dituzte.
  - Erromerietan, eskoletako jaietan... parte hartzen dute.

### **Edurne Dorronsoro Zubillaga**

- Billabonan jaio zen, 1981/12/06an.
- Martinen eskolan, Billabonan, ikasi zuen panderoa jotzen.
- Eva ahizparekin ibili da gehien bat pandero-jole moduan.

### **Nagore Maiza Sagastizabal**

- Urretxun jaio zen, 1982/01/07an.
- Zumarragako Musika Eskolan ikasi zuen, lehenengo solfeoa eta, birramonaren, Manuela Artolaren, panderoa aurkitu zuenean, panderoa jotzen ikasi zuen.
- Atabala jotzen ere ikasi zuen, lagun batek irakatsita.
- Irati Elorzarekin hasi zen erromerietan panderoa jotzen.
- Txapelketetara Xabier Aranbururekin joaten zen, eta Zeanuriko egiten den Trikitilari Gazteen Txapelketan txapeldunak izan ziren.
- Erromerietan ere ibili ziren Xabier eta biak.
- Orain pandero eta atabala jotzen ditu, herriko hainbat ekitaldietan, trikitilariekin eta dantzariekin.
- Lanbidez mekanikaria da eta masajeak emateko kontsulta ere badu.